

Denborak

Maidar lantzi

Gauzen Internetez idatzi nahi nuen. Lehengo egunean txunditu ninduen Zamudioko parke erraldoiaz. Bertan marraztu zidaten Sarenet eta Irontec-eko zuzendariak bizitzen ari garen iraultza teknologikoak ekarriko diguna, ekartzen ari zaiguna jada. Hotza sartuko dela sumatzean bakarrik jausten diren pertsianak. Beteak ala hutsak dauden jakinarazten duten edukiontziak. Industria lantegi batean makinak noiz honda daitezkeen aurreikusi eta hondatzea ekiditeko sistema. Pertsona bat non dabilen abisatzen duen pultsera. Informazioa duen edozeri aplikatzen ahal omen zaio Gauzen Internet. Irekitzen diren aukerak

ikaragarriak dira. Ezin ditugu irudikatu ere egin... Egun berean, Zamudioko parke erraldoitik Etxebarria herri txikira joan nintzen eta hark ere zirrara eragin zidan. Logelan wifia zegoen baina gainerakoan “Herri txiki, infernu handi” saioan bezala sentitu nintzen. Behar nuen lekura eraman ninduten autoan, bide-gorri zoragarri bat erakutsi, hizkera desberdina adituta interesa agertu, solasa eman, bizia kontatu... Horretaz guztiaz ere idatzi nahi nizuen, baina, handik egun batzuetara, ziztada handia sentitu nuen prentsaurreko batean. Joan den asteburuan, Etxebarrian nintzelarik, kartzela urrunetan maite dituzte-

nak bisitatzetik bueltan istripua izan zuten bederatzi senideena zen. Negarra zintzurrean trabatuta eman zuen testigantza Amaia Sarrionandiak eta ezin nion zuzenean begiratu. Mina ematen zidan. Urte gutxitan segundoko megabyte bateko abiaduratik 300 megako ziztu bizira pasa da Internet gure etxeetan. Zorionez, patxada handiagoa arnasten da Etxebarrian. Baina Etxeraten agerraldian denbora izoztuta zegoen. 1989tik eternitatera luzatzen ari den mina. Zenbat segundo, zenbat kilometro, zenbat mobilizazio, zenbat hildako. Eta zenbat horien guztien gibelean pertsonak daude, nahiz eta begirtzea gogorregia egin. •

Pornoa eskolan

Xabier Mikel Errekondo

Ez nau bereziki erakartzen LOMCeri buruz aritzeak. Mamu handi horrek besteen artean sexu-heziketa demonizatu egin du eta. Eskerrak azkenean atzera botako dutela inkisiziora itzularazi nahi gaituen lege organikoa, ilunpez, giltzarrapoz eta prejuizioz beteriko gazteak hezteko prestatutako muntroa. Arrazoiak anitzak eta gurutzatuak izanik ere, etenik ez duen sexu jazarpenari aurre egiteko gakoetariko bat heziketa dela bat gatoz. Agerikoa da orain arte dosi nimoetan eta zurikeriatan oinarritutako sexu heziketa ereduak ez direla eraginkorrak izan ez izango, ez bada ministro edo kontseilarien kontsolamendurako. Mugimendu feministak aspaldi aktibatu ditu

mezu eta erantzun zuzeneko antolatuetan oinarritutako dinamikak. Ez ei dira guztien gustuko. Baina genero maila guztietan berdintasuna bada helburu benetakoa, nekez lor daiteke egoera ezin larriagoa iraultzea guztiontzat erosoak diren eta inor molestatuko ez duten neurriekin. Ez gaitzezen engaina. Gure amona-aitonen garaitik, “sexua” hitza bera tabu zenekoa, uste baino gutxiago aurreratu da sexu heziketan. Geure esku egon arren, arduragabekeriaz jarraitzen dugu jokatzen: sexu harreman gogoak gazterik pizten direla jakin arren, eskolan zein etxean anatomiaz eta antisorgailuez harago apenas irakasten diegu ezer. Burutazio bi hauek nebilzkiela aurkitu nuen astelehenean proposamen benetan

eraginkorra @mikelgi-ren “Argia”-ko blogean, Jenni Murray kazetariaren eskutik: eskolatan pornoa aztertzea. «Ohiko pornoak emakumeak objektu eta gizonentzako plazer-iturri huts bihurtzen ditu», eta nerabeek sexu praktika balore horietan berneratzeko arriskua dute kontuan hartzen badugu %60erentzat pornoa dela sexu-heziketaren iturri nagusia. Pornografia ikasgelan sartu, irakaslearen laguntzaz eztabaidatu eta mezuak iraultzea proposatzen du, eta berdin etxean gurasoekin. Ziur nago gazteek gezurrak eta beldurak uxatzea lortuko lituzketela eta sexualitatea naturaldu eta sendotu, baita sexu harreman egiazkoago eta bihurriagoak izan... nola gurasoek zein irakasleek. •